

ONDARE-ERREKLAMAZIOAK	
Zer da? Zertan datza?	Pertsona fisiko edo juridiko batek erreklamazioa egiten dio EKPri, portuak kudeatzeko zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren ondorioz, eta ez halabeharrez, ekonomikoki neur daitekeen kalte pertsonal edo material bat jasan duelako.
Nork eska dezake?	Kalte pertsonal edo materiala jasan duen edozein pertsona fisikok edo juridikok.
Aurkeztu beharreko dokumentazioa	<ul style="list-style-type: none"> Behar bezala zehaztutako erreklamazioa, gertatu dena, non gertatu den eta ezbeharraren data azalduz, baita jasandako kalte pertsonal edo materialen xehetasuna ere. Erreklamazio horrek data eta sinadura izan behar ditu. Konponketaren faktura edo aurrekontua Txosten medikoa, hala badagokio. Istripua izan duen ontziaren edo ibilgailuaren titulua. Pertsona juridikoa bada, ordezkaritza-ahalmena.
Non izapidetzen da?	Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legean ezarritako bitartekoen bidez.
Betebehar ekonomikoak	Prozesu honek ez du betebehar ekonomikorik.
Prozesuaren edo ebazpenaren epea	Aurkeztutako erreklamazioak ebazteko epea 6 hilabetekoa da, erreklamazioa jasotzen denetik EKPrek Zuzendaritzak erreklamazioa onartzeko edo ez onartzeko ebazpena ematen duen arte.
Lege-esparrua	<ul style="list-style-type: none"> 39/2015 Legea, Administrazio Prozedurarena 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
Oharrak	Ez da aplikatzen
Onarpena	EKPko Zuzendaritzak erreklamazioa onartzearen alde emandako ebazpena.
Jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> Erreklamazioa bide egokitik jasoko da. Sail Juridikoak txostena eskatuko dio ezbeharra gertatu den portuko arduradunari. Txostena jaso ondoren, ez onartzea bidezkoa den ala erreklamazioa onartu behar den baloratuko da, eta administrazio-erantzukizuneko espedientea hasiko da. Espedientea irekiz gero, ondare-erantzukizunagatiko erreklamazioa hasteko ebazpena bidaliko zaio erreklamatzailari, eta 10 eguneko epea emango zaio entzunaldirako. Espedientea irekitzen denean, erreklamazioaren eta ezbeharraren agiriaren berri emango zaio aseguru-artekariari, aseguru-etxeari jakinaraz diezaion. EKPk erreklamazioa onartzen ez badu ere, erreklamazioaren eta ezbeharraren agiriaren berri emango zaio aseguru-artekariari.

	<ul style="list-style-type: none">• Erreklamatzaileren aldetik ezarritako epean alegazioak jasotzen badira, aseguru-artekariari helaraziko zaizkio, aseguru-etxeari jakinaraz diezaion.• Jasotako alegazioak aztertu ondoren, eta epea igarota alegaziorik jasotzen ez bada, erreklamazio-ebazpenaren proposamena egingo da, eta horren berri emango zaie aseguru-artekariei.• Ebatzi aurretik aseguru-etxearen erantzuna jaso arte itxarongo da.• Aseguru-etxearen erantzuna jaso ondoren, ondare-erantzukizunaren espedientea ebazten duen ebazpena emango da.• Ebazpen hori erreklamatzaileri eta artekariari bidaliko zaie, aseguru-etxeari jakinaraz diezaion.
Ondorengo izapideen laburpena	Ez da aplikatzen